

## **Etxebizitzen alokairua sustatzeko zerga neurriei buruzko urriaren 27ko 9/2005 FORU ARAUA**

### **2. artikulua. Abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, aldatzea.**

2005eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ondoko xedapenak aldatu dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/2005 Foru Arauan:

**Bat.** 9. artikuluko v) letran jasotzen den zerrendari beste xedapen bat gehitu zaio, eta honela dio: «r) 316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatzen duena, errentariei dagokienez.»

**Bi.** 76. artikulua 1 apartatua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«1. Ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik zergaldiaren barruan diru kopuruak ordaintzen dituzten zergadunek bi kenkari hauetako bat egin ahal izango dute:

a) Zergaldian ordaindutako kopuruen %20, 1.600 euroko mugarekin urtean.

b) Zergaldian ordaindutako kopuruen %25, 2.000 euroko mugarekin urtean, baldintza hauetakoren bat betetzen duten zergadunak badira:

—35 urte baino gutxiago edukitzea.

—Familia ugariaren titularrak izatea.

—Ezintasun iraunkor osoa edo erabatekoa, edo baliaezintasun handia onartuta izatea.

—Etxebizitzen errentariak izatea eta «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatzen duen abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuak xedatutakora bilduta egotea.

**Hiru.** 76.bis artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«76. bis artikulua. *Kenkaria etxebizitza errentan emateagatik.*

1. Errentatzaileak etxebizitza errentan emateagatik lortutako etekin garbiaren 100eko 20ko kenkaria egingo ahal izango du, barne hartuta etxebizitzarekin batera errentan emandako altzariak, trastelekuak, garaje plazak eta bestelako eranskinak, baldin eta Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak 2. artikuluan aipatutako errentamenduak badira.

Kenkari hori etxebizitzen jabeek nahiz haien gaineko usufuktu eskubide errealeen titularrek aplikatu ahal izango dute abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuak, «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatzekoak, xedatutakora bilduta daudenean edo, bestela, Sozietateen gaineko Zergaren araudian etxebizitzak errentan ematen dituzten entitateentzat jasotako araubide bereziaz gozatzen duten sozietateei utzi edo alokatzen dizkietenean.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kenkaria 1.600 eurokoa izango da gehienez».